

elkarturik

Par Txillardegia

Azkenean, kosta izan bada ere, elkarturik dauzkagu Donostian "navarro"ak eta "vascongadoak". "Zazpiak bat" urrun bada ere, horra hor, eskuz-esku, "Izurac bat"-en aldekoak eta "Navarra españolisima"-ren aldekoak Loretope-gaineko jauz-gerri gorri ederrean baturik.

Ba al legoke miresgarriagorik? Gomara eta Leizaola (junior) batera mintzatu dira. Zer esan dute? "Autobideari bai"; projektu horren obratzetik pasatzen baitira "demokrazia" eta "herri-nahiaren errespetua". Omen...

Eta gauzak honetaraz gero, zilegi bekit neure iritzi pertsonala argi eta garbi azaltzea.

Beti pentsatu izan dut nik, eta gaur bertan ere horretantxe nago, Iruñea eta Donostia lotzen dituen errepidea ondu beharra dagoela; eta abertzale batek nekez joka deza-keela nafartarrak eta baskongadoak urruntzearen alde. Gaur egun dagoen lotura (aski du irakurleak Donostia-Iruñea berebilez edozein astegunetz burutzea) definditu ezina da; eta are gutxiago abertzaletasunaren aldetik. Hau garbi dago.

Hots, gaur Miramar jauregian onartu den agiriak, helburu bakar bat dauka: «impedir que una minoría se oponga a la opinión mayoritaria vasco-navarra» (1).

Hain zuzen ere, orain dela egun gutxi, Gasteizko legebiltzarrak, aho-

batez, *autodeterminazio* prozesua abiarazteko proiektuari esan dio «ez». «Un no por unanimidad» (2), irakurri genuen prentsan.

Hots, benetan dirudi "Pacto"ko partiduek hor *gutxiengo* baten nahia atera nahi dutela aurrera *gehiengoaren* kontra.

Zeren-eta herri honetan *gehien-goak* benetan nahi baldin badu Espainiaren barruan egon, eta autodeterminaziorari uko egin, borondate hori nabarmen agertuko bailitzateke herri-kontsulta batean.

Ez dute hori sinesten, ordea. Independentziaren aurkakoak *gutxiengoa* dira, eta badakite; eta horregatik, *kontsulta ez galtzeko*, autodeterminaziorako bidea hesten dute. Eta, horrela, "minoría"ren nahia *inposatzen* dute.

Hori baino okerrago: Gasteizko Legebiltzarrak berak onartua baitu, ideien mailan behintzat, Euskal Herriaren eskubide sakratu hori. Paktoko alderdi ez-sukurtsalistek, hitz batez, *desbideratu* egiten dituzte bai Gasteizko erabaki nagusiak, *bat berorien partidu oinarrien nahia*. *Hautetsiak hautesleen kontra* agertzen.

Autobide ofizialaren etsaiek, hain zuzen, desbideraketa fenomeno *berbera* gertatu dela uste dute. Eta horregatik proposatzen dute *herri-kontsulta* berezia, "referendum" bat, partiduen zuzendaritzak hautesleengandik urrundu diren segurantzian. Zergatik ez kontsulta hori egingo? Zergatik, batez ere, *gehiengoaren nahia* berekin dagoela sinesten baldin badute?

Ez dut nik sekula pentsatu (eta orain ere ez) Euskadiren ardatza autobide honi buruzko eztabaida luze honen baitan dagoenik. Gure *ardatza euskara* da; eta euskara bermatzeko behar den botere-malla lortzeko bide *bakarra* autodeterminazioan funtsatzen da. Hori uste dut.

Bigarren mailako kraskagune horretan denak kokatu, eta hordagoa hor botatzea, oso tristeza dela iruditzen zait. Arriskugarria izateaz gain. Burubideak hau idarokitzen digu denoi: okerragotara gabe, eta herri-kontsulta batez, molda daitekeen arazo honetan, enbidoei eta hordagoei uztea.

Eta baskongadoak eta nafartarrak elkartuko direnean, helburuak eta bideak hobeki hautatzea.

Beste guztia oso maxkarada hitsa eta tristagarria da.

- (1) empêcher qu'une minorité s'oppose à l'opinion majoritaire vasco-navarraise.
- (2) Non à l'unanimité.

AITA ARRUPE

■ Nortasun karta: sortua 1907-ko hazilaren 7-an Bilbon. Aita etxegilea, "gaceta del Norte" kasetaren sortzailetarik bat. Medikuntza ikasi zuen Valladoliden eta Madrilen. 19 urtetan sartu zen Loiolako Jesusen lagundiko ikastegian. 1932-an badoa Holanda, Belgikara. 1936-an, apezten da. 1936-an badoa Ipar Ameriketara psikiatra eskolak segitzen ditu. 1938-40 artean Japonian da misionest, Yamagushiko erretor. 1940-an egiten du presondegiaren jasta, 35 egun bakardade gorrian. 1942-an, ematen dute Hiroshimako Jesuiten buru. 1945-eko agorrilaren 6an Hiroshimako bomba atomikoa zapartatzen da. Pedro Arrupe laguntza lanetan ari da. 1965-ean, Jesuiten 31-garren biltzar handiak ordenaren jeneral izendatzen. 1981-ko agorrilean lehen paralesia erasoak eskuin aldea ezindurik uzten dio. 1983-an, jeneral kargua uzten du. 1991, osoki paralesiatua zendu da otsailaren 2-an.


ARRUPE, MUNDUKO ETA EUSKALDUN HARROA

Zer ekarri dion Arrupe-k Euskal Herriari?

Japonia eta Asiaren funtsezko sentipena nor nahi baino lehenago ohartua zen Japonia etzela ahanzti behar.

Bazekien nolako tirabirak diren Ipar eta Hego Amerikaren artean. Ikusi du ongi «Liberazioneko Teologia» hori har daitekeela, ez bidean geldituz, bururaino joan behar dela, bertzela bortizkeria sortarazten da, erremedioak batzuetan kalte egiten duen bezala.

Afrikari buruz, Aita Arrupe-k zazpi egin ahalak ibili ditu Afrika bizi dadin funski, xutik, beregain; besten laguntzarekin segur, baina nor bizi daiteke gaur egun bakar bakarrik.



Europako egoera aski ezagutzen zuen. Bazekien mendebaleko estadoen harrotzen: jendea zahartzen eta bere aberastasunean lo-kartzen, hori ez zitzaion batere egoki.

Zortzi mintzaera ematen zituen: latina, española, italianoa, inglesa, frantsesa, alemana, japonesa eta euskara.

Lurden 1922-25 artean mirakuluzko sendapen bat ikusi zuen bere begien aitzinean gertatzen.

1945-ean Hiroshimako bomba atomikoaren desastre izigarriak probatu zituen: liburu bate-tan eman du lekukotasuna.

Mundu honetan lehentasuna Jesu Krixto-k, gero mundu honen salbatzea, aspektu ekonomikoan bereziki, gero baizik ez dela heldu Eliza: munduaren zerbitzuko.



CETTE SEMAINE TARTARO s'est étonné :

qu'après avoir évoqué le danger terroriste, Mitterrand ajoute : «Nous ..aimons pas la guerre... Nous ne la voulons pas». Ce qui veut dire en clair : «les terroristes l'aiment, ils la veulent». Tonton le rusé n'affirme pas. Il insinue...

- que pour régler le conflit du Proche-Orient, Chirac propose une conférence dite régionale où interviendraient les Etats d'Israël et de France. Décidément, Chirac le Jacobin ne conçoit les régions, même étrangères, que sous la tutelle de l'Etat français.

- que les six policiers impliqués dans une série de vols à main armée commis dans la région parisienne aient été remis en liberté... Sans doute pour voler au secours des voleurs !

- qu'en dérobant une tonne de NC2, puissant explosif communément appelé gomme 2, les Corses aient voulu rivaliser avec les Basques. Il est vrai qu'au classement des poseurs de bombe, Georges Bush arrive très largement en tête.

- du nombre significatif des 22 curés (parmi eux Roger Idiart) dont le témoignage figure dans le livre de Nicolas Piggasse : «Croient-ils tous au même Dieu ?» (Editions Filipacci). Jusqu'à présent, on disait : «Vingt-deux ! V'la les flics !».